

ERREPORTAJEA

Eraikitzailearen begiradak. Autoeraikitzailearen gazi-gezak



Fran Nieto

*Eraikitzailea. Kabia Eraikuntza
Naturaleko kidea 2011etik.*

Jasotze-data: 2014-12-05

Onarpen-data: 2014-12-19

%%%%%%%%%

Etxe baten proiektuari ekiterakoan, ilusio handiz hartzen da proiektua, baina eraikuntzak badu ekidin ezinezko aferak, eta eraikitzaileek eskarmertu gutxiko, baina ilusio handiko jabeen lehenbiziko zalantzak argitzen dituztenak izan ohi dira.

Profesional legez autoeraikuntzari buruzko zertxobait idazteko eskatu zidatenean, konkretuki, autoeraikitzaileekiko nire esperientziari buruz, ez neukan oso argi nondik nora joan. Saiatuko naiz, nire bizipenetik, nire iritzia botatzen.

Lehenik esango nukeena zera da, etxe bat eraikitzea ez dela erraza. Nahiz eta aspalditik gero eta gehiago izan tailerrak eta ikastaroak, etxe bat egiten ez da ikasten asteburu baten... ez bitan! Batzuetan, edo hobe esanda askotan, bioeraikuntzaren inguruan gabiltzanon errua dela esango nuke ere bai. Askotan animatzen dugu jendea bere etxea egitera, antolatzen ditugun tailerretan idazten diren artikuluetan eta agian egia guztia ez dugulako kontatzen, alde txarrez gutxitan aritzen gara. Ez da gauza bera lastozko 15 m²-ko etxola bat edo 100 m²-ko solairu biko etxe bat egitea. Hemen, bigarren kasuan agertuko diren zalantzak askoz gehiago izango dira. Obra luzea izango da seguruenik, eta martxan gaudela arazoak konpontzea, hurrengo pausoetan arazo bihurtu ahal izango da.

Gauza asko hartu behar dira kontuan etxe bat egiteko. Zimentazioa hasi orduko hasten dira lanak, eta kasu askotan buruhausteak. Zer-nolako zimentazioa, zapata jarraitua edo zolata bat, edo lurraren zuinketa, edo zer makina sartu edo... bufff! Gero egitura etorriko da, teilatua, iturgintza, elektrizitatea, erreboakoak eta abar eta abar. Non hornitu, nola jarri torloju hauek, zer angelutan, zer alturatan jarri





Goiko irudian ~ Egilea: Fran Nieto – Autoeraikitako etxe batean masa prestatzen.

behar da dutxaontzia, zer jarri karea ala buztina, ala porlana, eta nola aplikatu... Horretarako guztirako denbora beharko da eta planifikazio on bat, zer doa aurretik eta zer atzetik. Aurretik jarritakoa nola utzi, arazorik ez sortzeko hurrengo pausoan edo bi pauso haratago.

Eguraldiak ere ez du beti lagunduko eta hartu ditugun egunetan txarra izanez gero, atzeratu behar izango da eta orduan opor-egunak edo auzolana edo dena delakoa deuseztatuko da. Ilusioa sobera izaten da hasiera baten, baina denbora luzatu ahala ez da erraza izaten beti motibazioa goian mantentzea, eta beharko da.

Luzatzea askotan ikusi dudana gauza da. Jendea obra luzatu ahala eta arazoei bukaera eman ezinik dagoela erret egiten da. Horrelakoetan sartu izan naiz ni batzuetan, eta, hala eta guzti, esan beharra daukat niretzat beti esperientzia ederra izan dela eta nekatuta egon arren oso jende jatorra suertatu zaidala autoeraikitzaileen artean, nirekin oso ondo portatu dena.

Tokatu zaizkidan lanetan denetarik dago. Sortutako arazoei erantzuna eman beharra, besteek egiten ez dakiten lanak egitea, aholkularitza-lanak eta askotan esan beharra, buruko min asko. Egon behar ez ziren arazoak konpondu, batzuetan arazo oso espezifikoak eta kasu batzuetan konpontzen zailak. Horrek sortzen dizkidan kezkekin ere! Duela ez asko, pertsona batek deitu zidan galdetzeko ea zelan egin behar zion bere lastozko etxeari errebokoa, zer materialekin, zelan aplikatu eta non erosi, eta hori guztia nahi zuen gainera telefono-dei baten bitartez argitzea. Bada ezin da. Ezin telefonotik argitu zer tentura eduki behar duen masa batek, ezin esplikatuta nola jarri euskarrian, ezin...

Proiektu batetik errealitatera eroatea norberaren etxea gauza handia da. Errealitatea, ordea, ez da paper bat, ez egun pare bateko ikastaro baten ikasitakoa. Gauza askotarako esperientzia ezin izango da ilusioarekin ordezkatu. Gauzak ondo egin nahi baditugu behintzat. Etxe bat eraikitzeko gauza asko ikasi beharko dira, eta beste batzuk ezin izango dira ikasi eta, beraz, dakien baten batengana jo beharko dugu. Horrelako proiektu baten sartu baino arinago, bizitzako proiektu garrantzitsuenetako bat izan ahal dena, ondo neurtu norberaren beharrak, indarrak, jakintzak eta gaur eguneko gure gizarte honetan, sosak! Hausnarketa sakon eta zintzoa beharrezkoa izango dela esango nuke galdera hauei guztiei erantzuna emateko. Zer behar dut? Zer egiteko gauza naiz? Eta inoiz ez dugu horretaz hitz egin nahi, baina benetan garrantzitsua dan galdera, zenbat diru daukat?

Nire asmoa ez da hemen botatako lau ideiekin jendea desanimatzea, guztiz kontrakoa. Animatu eta egin edo parte hartu zuen etxeen eraikuntzan, baina 100.000 €-ko lur baten sartu baino arinago zintzoak izan zeuen buruarekiko eta ondo neurtu indarrak, zeren gero, seguruenik, fondoko lasterketa izan behar zuena maratoni bihurtuko baita.

Animo!

%%%